

# Ezpalak

JON TORNER

**Gonzalo Sanchez** Donostiako Dieciseis arte galeriako arduraduna izan zenaren omenezko *Ikuspegiaren arrastoa* erakusketazabaldudute Koldo Mitxelenako Ganbaran. Dieciseis Galerian izandako artisten lanak, hogeita sei margolan eta lau eskultura, jarri dituzte ikusgai erakusketa horretan.

**Santi Leone** (Iruñea, 1972) historian doktoreak *Euskal Herri imajinario baten alde* (Elkar) saiakera kaleratu du. Euskal Herria nazio asmatua dela dio bertan, euskal jendea bere burua interpretatzeko eta bere buruari nortasuna emateko ahaleginean aritu delako etengabe. Lan horretan nazioaren inguruko teoriak aztertu ditu Leonek eta bereziki hiru joera kritikatu ditu: Espainiako Historia Akademiarena, nabarrismo ofizialarena eta Nabarralderen ingurukoena.

**Xabier de Landaburu** politikari arabarrari (1907-1963) eskaintako *Bizitza osoa Euskal Herriaren kauserentzat* erakusketa paratu dute Gasteizko Amarica aretoan. Sabino Arana Fundazioaren Euskal Abertzaletasunaren Museoa antolatzen du eta martxoaren 9a arte izango da ikusgai.



**Carlos Marcote** eta Iñaki Cerrajería margolarien eta Patxi Cobo argazkilariren lanak erakutsiko ditu Bosteko arte garaikidearen XI. edizioak. Aurten lehenengo aldiz argazkiak ere bildu dituzte erakusketa ibiltarian. Arrigorriagan, Ondarroan, Leioan, Zornotzan, Getxon eta Basaurin izango da ikusgai.

**Euskaltzaindia**k Bergarako Olaso Dorrea Sorrerakundearen ondare bibliografikoa katalogatu eta Azkue Bibliotekan gordeko du. George Lacomberen bildumakoak dira lan guztiak. Tartean daude, besteak beste, Leizarragaren *Testamentu Berriaren* bi ale, Joanes Haranbururen *Debocino escurra, miraila eta oracionotegua*, Axularren *Guero*, Xahoren *Voyage en Navarre* eta Pierre d'Ancreren *Tableau de l'inconstance des mauvais anges et démons*.

## Kaotiko, Lendakaris Muertos eta SA: Gasteizen bada mugimendurik



Kaotiko punk-rock talde arabarrak *Adrenalina* (Oihuka) bere laugarren diskoa kaleratu du. Martxoaren 1ean eskainiko du aurkezpen birako lehen kontzertua, Gasteizko Azkena aretoan. Hilaren 29an Lendakaris Muertos taldeak

hango gaztetxean aurkeztuko du CD+DVD berria: *Vine, vi y me vendí*. Eta apirilaren 21ean, Soziedad Alkoholika banda gasteiztarrek (argazkian) *Mala sangre* (Roadrunner) diskoa kaleratuko du. Taldearen webgunean ([www.soziedadalkoholika.com](http://www.soziedadalkoholika.com)) irakur daitekeenez, kontzertuak zein egunetan eskainiko dituzten oraindik ez dute iragarriko, jasaten ari den zentsura dela eta.

## Rolei buruzko hausnarketa artistikoa

PRIPUBLIKARRAK kolektiboak eta Nontzeberri webguneak ezartzen zaizkigun rolen inguruko hausnarketa bultzatzea xede duen Rolling Rollak ekimena jarri dute abian. Hiru ataletan banatu dute: *Argazkeli* on-line argazki lehiaketa, genero kontuak eta feminismoaren agente sozialak bilduko dituen *Camara Crossing* argazkikatea eta *Generoak eta gorputz ekoizpenak* mintegia. Hiru atalei buruzko informazioa *Argazkeli* webgunean kontsulta dezakezue: [www.nontzeberri.com/argazkeli/2008/](http://www.nontzeberri.com/argazkeli/2008/).

[Aristides Vargas Kukubiltxoren Haritzaren azalera zehatza obraren zuzendariak Berrian:](#)

«Beti pentsatu izan dut antzerki taldeek aldaketak, aldaketak ahalbidetzen dituzten uneak eta eraldaketak baldin badituzte, egin dezaketela aurrera. Antzerkigintza garaikideko talde askok duten arazo nagusia gelditasuna da. Lan egiteko modu antolatuegia izaten da gelditasunaren arrazoia. Gelditasun horretan daude, besteak beste, arteak berezko dituen istripua, zoria edota aurreikus ezin daitekeelako sentimenduak. Era horretan, artearen funtzionario bihurtzen dira. Hori horrela izanik, ibilbidea eta nortasuna berriz planteatzea oso osasungarria iruditzen zaio».

[Imanol Marrodan artistak Diario de Noticias de Alavan esanak:](#)

«Hemen kutxan, estalkian pentsatzen dugu lehendabizi, eta gero edukian, kutxa hori betetzeko moduetan. Gainera, gauzak zentralizatzeko joera dago, kultur jarduera metatzekoa. Artium, Montehermoso eta etorkizuneko Krea bezalako zentroek motore lana egin dezakete, baina beste esparru batzuetan parte hartze handiagoa izan behar da. Inola-ko zentzurik ez duen botere kontzentrazioa da. Ni, pertsonalki, Montehermoson sexualki baztertua sentitzen naiz, arteari buruzko eremu hain mugatua baitu... Artea, dagoen gauzarik zabalena, sekta bilakatzen dugu. Ez du zentzu askorik».

## Hamabi arrakala mundua amesteko

Txuma Murugarren, *Marjinalia* (Gaztelupeko Hotsak)

"Murukoa da mutil hori" entzuten nuen txikitari. Hots, Murugarren herrikoa. Nafarroan, gaztelaniaz. Txuma Murugarren musikariaren izena lehen aldikoz entzun nuen ele horiekin oroitu nintzen. Nafarra izango ote da? Erreteriarra zela jakin nuen gero, nahiz ordurako Bizkaian egokitua zela sumatu. Gure geografiaren gorabeherak eta kontutxoak.

Sasoi ilunak taldearen garaiak ez nituen ezagutu, nireak ere sasoi ilunak izaki nonbait. Murugarrenen ahots urratuak gure geografian gaindi autoz nindoala kausitu ninduen lehen aldikoz. Soraluzeko Gaztelupeko Xarra eta Ubane giltzarien hotsak ezagutzen nituen ordurako, ez ordea Gaztelupeko ahots arrakalatuak.

Txuma Murugarren, aita gogoan, *Marjinalia* galtzarbean heldu zitzaigun iazko hondarrean. Aita opera zalea zela entzun nion irratitik, gure geografian gaindi nindoala beste behin ere.

Bilbo Hiria irratiazen hamargarren urtearen karietara mahai berean eseri ginen Murugarren eta biok. Ez ginen elkarren ondoan suertatu, ez berbarik elkarralatu. Orain berriz, *Biok sobera* kantuak arrakalatu dit bihotza: "Zenbat jende bizi zarete nire inguruan eta ez zaituztet sumatzen (...) Arrotzak gara", burrunbatzen dit bere ahots sarkorrak.

Astetik atera, aste-ko politikariaren peskizan noala, Baiona, Iruñea, Gasteiz, Donostia edota Bilbora noala, entzun ohi dut Murugarrenen *Marjinalia*. Burdinazko hodeien



ostean hegazkinek arrakalatu duten zerua irudikatzen dut autoan: "Hilurren den zeruak ezin die izarrei eutsi eta izerdi tantak erortzen zaizkio" dantzut *murugarrenez*. Eta politikariaren azken esanak entzun eta bildu ondoren, bere ahots arrakalatuak "besoetan lur bat odolusten ari zaigula" esaten ote didan susmoak aztoratzen nau.

Goizean goiz, *Ridi pagliaccio* kantuarekin abiatu ohi naiz *Mururekin*, farandularen mundura. Gure orografia malkartsuko hamabi arrakalak dira *Marjinalia*ko kantuak. Itsasoaren kulunka eta zeruaren zilarra barneratzen ditut Txuma Murugarrenen aire ozonen bitartez.

Gure lurraldeetako muinoen gaindi *Gaua helduko da* entzunez heldu ohi zait egunaren amaia. Bihar mundu aratz paregabea zoragarria sortuko dela amestuz. *Marjinalian*. Murugarrenen.

MIKEL ASURMENDI

www.bertsozale.com

sentitu  
gozatu  
astindu

## Arabako bertsozale txapelketa 2008

2. Kanporaketa

Otsailak 29  
LANTZIEGOko  
Luis R-ko Upategian - 20:00etan

3. Kanporaketa

Martxoak 1  
AGURAINgo  
Sarayola jatetxean - 20:00etan

Antolatzaileak:

- Arabako Bertsozale Elkartea

Laguntzailea:

Babesle nagusiak: